

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Lehenik behin argi utzi nahi dugu garrantzi handikoa iruditzen zaigula bezeroekiko tratua edota izango dugun harremana. Kontuan izanda hasiera batean gure produktua ez duela edonork erosiko aurretik adierazi dugun bezala bezeroen maila ekonomikoak eta haien beharrek asko baldintzatuko dutelako, gure inplikazio maila handia izango da. Bidezkoa iruditzen zaigu tratu pertsonala aurrez aurrekoa izan dadin beti ere gertukoak izango bagina bezala sentituz gero konfiantza maila ere altuagoa izango da.

Bestalde, gaur egun teknologia gure egunerokoan presente dagoela argi dago. Biztanleriaren gehiengoan, gazteetan besteak beste, instagram, facebook eta bestelako sare sozialak oso ohikoak dira, beraz, hori horrela dela ikusita, zentzuzkoa iruditzen zaigu tratu pertsonala aurrez aurrekoa izateaz gain eskaerak zein kexak egiteko web-orri bat irekitzea. Honen bitartez, kaleko komunikazioaz gain, sare sozialen bidez ere zabaldu dezakegu gure produktua.



Business Handshake